

IKASKETA PLAN BERRIAK ONARTU ZIRENEAN EHU-N EUSKARA EZ ZEN IA KONTUAN HARTU

Azkarate: «Hezkuntza Sailarekin kontsentsuatu behar da Plana»

EHUko euskararen normalkuntzarako bigarren plangintza Hezkuntza Sailarekin hitzartu behar dela uste du Miren Azkaratek, EHUko irakaslego errektoreordeak. Lehen plana betetzeko izan ziren baliabide mugak ez gertatzeko bidea litzateke hori.

Luis Fernandez / Donostia

MIREN AZKARATE euskaltzain eta errektoreordeak uste du EHUko bigarren normalkuntza plana Eusko Jaurlaritzako hezkuntza Sailarekin kontsentsuatu beharko dela. «Euskara errektoreorde izan nintzenean, beti defenditzen nuen hurrengo plana kontsentsuatu beharko zela ez bakarrik unibertsitatean, baita Hezkuntza Sailarekin ere», adierazi zion Azkaratek EGUNKARIARI atzo. Egun EHUk darabilen bigarren planerako zirriborroa Azkaratek prestatu zuen euskararako errektoreorde zenean, postua Juan Ignacio Perezi utzi aurretik.

Jaurlaritzaren partehartzea ezinbestekoa iruditzen zaio Azkarateri. Haren iritziz, irakasgaiak euskalduntzeko konpromezua hartuz gero, Jaurlaritzatik diru babesa ziurtatua egon beharko da, ez dadin gertatu helburuak berriz bete gabe gelditzea. «Ez dadila gertatu, ehun irakasle beharko genituzkeela, eta azkenean 50 kontratatzekeo dirua izan», dio Azkaratek. Hezkuntza Sailari ere plana aldeztu aurretik lotzea interesatuko zaiola uste du Azkaratek.



Miren Azkarate, EHUko irakaslego errektoreordea.

ARTXIBOA

Lehen plana nola egin zen • Neurri handi batean, lehen normalkuntza planari horixe gertatu zitzaion, Juan Ignacio Perezek Legebiltzarrean azaldu zuenez joan den astean: baliabide mugatuak zeuden nahi ziren kontratazioak egiteko. «Kontratazioak egin ziren, baina ez plangintzaren arabera, baizik eta Jaurlaritzak ematen zuenaren arabera», azaldu digu lehen normalkuntza plan hura diseinatu zuenetako batek, Iñaki Alegria informatika irakasleak.

1980ko hamarkadaren amaieran, behin baino gehiagotan plazaratu zen eskakizuna Euskara

Batzordetik EHUk normalkuntza plan bat behar zuela. Halakorik erredaktatzeko ekimena inork hartzen ez zuela ikusirik, lana batzordekide batzuen gain hartzea erabaki zuten. Halaxe egin zuten plan hura Pilartxo Etxebarria, Laura Mintegi eta Iñaki Alegria irakasleek.

Euskara Batzordeak eta orduko euskara errektoreordeak, Jazinto Iturbek, bere egin zuten plan hura, 1990eko otsailean. Alegriak onartu duenez, «sektore batzuetan nahiko mesfidantzarekin hartu zuten plana». Gaur egungo errektore Pello Salaburu

euskaltzaina izan zen plan hura gogor kritikatu zutenetako bat. «Unibertsitatea euskalduntzeko plangintza hiru lagunen artean egin dute, eta benetan, ez dakit, prentsan agertzeaz aparte, baduen inolako funtsik», adierazi zuen Salaburuk 1990eko Argiaren Euskal Kulturaren Urtekariaren argitaratutako mahai-inguru batean. Gehiago ere esan zuen egungo errektoreak ordukoan: «Nik publikoki esango dut, eta jendea harrituko da beharbada, dirua nonbait bota behar bada euskararen alde, agian unibertsitatea dela azken txokoa».

Ikasketa plan berrien eragina

Aurrekontuen babesik ez izateaz gain, planaren epea hasi eta gutxira ikasketa plan berriak eztabaidatzen eta onartzen hasi zen EHU, 1990eko hamarkadaren lehen erdian. Horrekin zailtasun gehigarriak azaldu zitzaizkion normalkuntzari. Plan berriekin, irakasgai kopurua asko handitzen da, ikasleek lehen mailatik hautazko karrera egin dezaten. Horrek titulazioak euskalduntzeko markatutako helburuetan eragin nabarmena zuen; hala ere, euskarari arretarik eskaini gabe egin ziren plan berriak.

Iñaki Alegriak honela gogoratu du gertatutakoa: «Euskara Batzordean esan genuen batzuek, plan berri bakoitzeko, itsatsita eduki behar zuela bere euskalduntze plangintza onartu baino lehen. Ez ziguten kasurik egin. Onartu ziren planak erdaraz emango zirela, eta euskaraz ahal bezala, batere planifikatu gabe».

Euskara Batzordeko zenbait kidek dimititu egin zuten une hartan, Iñaki Alegriak horien artean. Miren Azkaratek ere uste du euskalduntzearen beharrak albo batera utzi zirela. «Ikasketa planak egin zirenean ez zen kontuan hartu zenbat irakasle elebidun beharko ziren. Plan batzuek badute memoria ekonomiko bat berekin, eta batzuetan esaten da horrenbeste irakasle elebidun beharko direla urte batzuen buruan. Ez zen guztietan hori egin. Gainera, gauza bat da txosten ekonomikoa egotea eta beste bat dirua edukitzea hori lortzeko».

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateko zuzendari Mikel Aizpuruk «kezkaagarriztat» jo du «nagusitzen ari den joera», elebitasuna planteatzeko. «Irakaskuntza elebidunarekin praktikan euskarak galtzen du». X

Kontrapasako ehiza baimentzen duen araua errekurrituko dute Gipuzkoako ekologistek

■ Txueka diputatuak erabili dituen

«trikimailuak» salatu dituzte

Alazne Iturriotz / Donostia

GIPUZKOAKO talde ekologistek errekurtsio kontentzioso-administratiboa aurkeztuko diote kontrapasako ehiza baimendu duen Gipuzkoako foru arauari. Europako Batasunera ere joko dute beren kexa agertzeraz, eta «kalte konponezinak eragingo dituen arau edo beste eraso hau dela-eta» hainbat ekimen egingo dituzte. Esate baterako, gaurtik hasita boluntarioak izango dira Gipuzkoako ehiza-leku guztietan ehizarako legea eta ordutegia betetzen denentz kontrolatzen.

Kontrapasako ehiza baimentzen duen foru araua aurreko asteazkenean argitaratu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean, eta gaur bertan hasiko da ehiza garaia. Ildo horretan, Iñaki Txueka Nekazaritza diputatua Justiziarekin «arratoiaren eta katuaren jokoa» dabilela salatu zuten atzo Txingudi Aldeko Koordinakundea, Irungo Otea, Zumaiako Natur Taldea, Eki eta Eguzki talde ekologistek. Hots, Gipuzkoako talde ekologistek zera salatu nahi dute: epaitegiek errekurtsioa aintzat hartu eta foru araua bertan behera uzteko erabakia hartu orduko amaituta egongo dela kontrapasako ehizarako epea, eta ordurako ehundaka hegazti hilko dituztela ehiztariek. Izan ere, gaurtik martxoaren 25era iraungo du kontrapasak eta epaitegietako trami-teek luze jo ohi dute. X

Bi lagun atxilotu dituzte Gasteizen, hemeretzi autori su emateaz akusatuta

Erredakzioa / Gasteiz

Bi lagun atxilotu zituzten atzo goizaldean ertzainek Gasteizen, ustez autoei su ematen jardun dutelako. M.P.H. eta P.R.J., 34 urteko gasteiztarak dira atxilotuak.

Iazko urrian hasi ziren auto erreketak Ariznabarra eta Adurza auzoetan. Beti kale erdian aparkatuta zeuden autoak erretzen zituzten, aldi bakoitzean bat baino gehiago, eta beti sistema berarekin. Atzo goizaldean furgoneta bati eman zioten su. Hemeretzigarren autoa zuten.

Atxilotuak Ariznabarra eta Adurzakoak dira. Atzo Ertzaintzarenean ziren, epailearen aurretik noiz pasatuko. X

Jende ugari eta giro ona AEK Txotx Egunean

■ UAk bezala, PPk ere kontuak eskatu dizkio AEKri

Erredakzioa / Donostia

EHUNDAKA lagun elkartu ziren atzo Astigarragako eta inguruetako sagardotegietan AEK-k antolatutako II. Txotx Egun edo Sagardotegi Egunean. Euskal Herriko bazterretatik autobusean hurbildutako egundaka AEKzale giro onean elkartu ziren. Ikasle eta irakasleez gain, beste lagun mordea ere izan zen bazkarian eta arratsaldean egindako festan, Astigarragako plazan. Ikasleek eus-

kal giroan murgiltzeko eta euskararabiltzeko aukera eman nahi zien AEK-k ekitaldi honekin.

Bestalde, Partidu Popularrak ere bat egin du Unidad Alavesarekin AEKri kontuak eskatzeko orduan, ustez Koordinakundea Jarrai gazte erakundea finantzatu duelakoan. Carlos Urkijo parlamentarioak AEKrentzat onartu berri den 550 milioi pezetako dirulaguntza «izozteko» eskatu du, laguntzak zertarako diren argitu arte. X



Sagardotegiak AEKzalez bete ziren Astigarraga eta inguruetan.

EDURNE KOCH